

# BERBAROTARRA

## 7. zk. 1996ko martxoa

## Berbaroren boletinak itxura aldatu du.

Bazkideen eta elkartearen arteko harremana indartu nahian, berbarotarron arteko benetako komunikazio-tresna bihurtu nahi dugu boletina. Asmo horrekin, hemendik aurrera bi hilabeterik behin jasoko duzue. Bestalde, irakurketa arintzeko eta erosoagoa izan dadin, formatoa aldatu dugu. Boletinean, elkartearen ekintzen berri (erabakiak, programa, harremanak...) izango duzue eta tartea utziko diogu edozein iradokizun egin nahi duenari.

## Berbarok lan-poltsa Txokoa "ensegida"


Askotan deitzen dute elkar-terera langile euskaldunak behar dituztelako, honako edo halako lantxo bat, klase batzuk, itzulpekak, inkestak edo beste zereginen bat egiteko. Lan-poltsa horretan parte hartu nahi baduzu, bidali zure curriculuma Berbarora. Argibide gehiago nahi izanez gero, deitu gure bulegora (tel. 620 19 18).

Txiko atontzeko obrak otsailaren bigarren astean hasi ziren. Hilabete astetan txokoa dotore-dotore jarriko digute eta azken ikutuak baino ez dira faltako. Estatutuak ere prest daude, beraz, bazkideen batzarra noiz egingo den erabakitzea, txokoko junta aukeratzea eta estatutuak onartzea baino ez daukagu. On egin guztioi!

## Abizenen kanpaina arrakastatsua

Euskal abizenak euskaraz (euskal grafiaz) idazteko kanpaina guztiz arrakastatsua izan da. Urtarrilaren 8an, Berbarok kanpaina honi ekin zion eta jendearen erantzuna berehalakoa izan zen. Konturatu orduko, egunero-egunero Durangalde osoko lagunez bete zaigu bulegoa eta Sentsibilizazio-taldeko kideak (Inma, Joseba eta Gaizka) eta

Berbaroko dinamizatzaileak jo eta ke aritu dira hikabete luze



dokumentazioa jasotzen eta zalantzak argitzen. Bereziki azpimarratu nahi dugu Jose Luis

Lizundiak Euskaltzaindiatik eskaini digun laguntza.

Kanpaina hori Euskal Herriko beste udalerrri batzuetan ere egin da dagoeneko. Guztietan, oso erantzun hona izan du: Arrasaten, adibidez, 300 lagunek erabaki zuten abizenak behar den moduan idaztea. Berbarora, behin-betiko datuen faltan, 220tik urreratu dira, kopuru polita benetan.

# BAGABILTZA BAGABILTZA

**Berbarok ibiltari** jarraitzen du. Aurreko boletinean, esan genizuen gero eta leku gehiago dituzten digutela elkartearen berri emateko. Oraingoan, gure ordezkariak Iurretan eta Zaldibarren izan dira.

**D eredia bultzatzeko kanpainari** ekin dio Berbaroko irakaskuntza

taldeak EK Brekin batera. Azken urteetan bezalaxe, aurten ere Durango aldean kartelak jarri dira eta matrikulatzeko sasoian dauden haurren gurasoei gutunak eta diptikoak bidali zaizkie.

**1996ko kuota martxoan** pasatuko digute Berbaroko bazkideoi. Kuota

zatika ordaintzeak dakarren gastua handia da, beraz Berbaroko Zuzendaritzak urte osoko kuota batera pastzea erabaki zuen iaz. Hala ere, diru soberan inork gutxik ez duenez, nahi duenak bi zatitan ordaindu ahal izango du. Horretarako, dei dezala Berbarora (tel. 620 19 18).

## PREST ZAUDE LAN EGITEKO?

Egun batzuk barru txartel txartel bat jasoko duzue etxean. Txartel honetan Berbaron lan egiteko prest zaudela gal-detuko zaizue. Aukera desberdinak emango zaizkizue:

azpi-talderen batean, ekintza jakin batean edo edozertan parte hartu nahi duzuen. Txartela bete eta mesedez guri bidali edo eraman ezazue Berbaro tabernara.



## PRENTSETAN GABIZ

Martxoaren bukaeran Prentsetan Gabiz aldizkariaren 6. zenbakia kaleratuko da. Azken zenbaki honetan ikasleak jorratuko dituzten gaietarako batzuk hauek dira: datorren urtean eskoletan martxan jarriko den plan berria edo DBH delakoa, Kurutzia ikastolako antzerki lanak, aisialdi taldeen inguruan inkesta, komikiak, denbora pasak, e.a.

Eskoletan banatzen den aldizkari hau bazkideren batek jaso nahi badu, bulegora deitu datuak emateko. Gustura bidaliko diogu argitaratzen diren zenbakien ale bana.

## Euskara-taldeak elkarlanean

"Zure lehenengo berba euskeraz" lemapean, Berbarok kanpaina bati ekingo dio. Kanpainaren helburua telefonoa hartzen dugunean, euskeraz erantzutea da. Baina, kanpaina hori berezia da: Berbarorekin batera, Elorrioko, Eibarko, Elgoibarko eta Deba Garaiaiko udalerrietako euskara-taldeen hartuko baitute parte.

## UDAL EKONOMILARIA EUSKALDUNA OTE?

Udal ekonomilariak ez dauka zertan euskaraz jakin 1995eko urtarilean, Durangoko Udalak lanpostu-zerrenda onartu zuen. Bertan, besteak beste, ekonomilari lanpostua aurrikusi zen.

Horrelako lanpostu batek daukan garrantzia kontuan izan eta laugarren hizkuntza-eskakizuna ezarri zitzaien (euskara bera lan-gai duten lanpostuena alde batera utzita,

administrazioko lanpostu bati eskatzen zaion mailarik altuena, hain zuzen).

Hala ere, ez zitzaion derrigortasunik jarri, beraz, ez dauka euskalduna izan beharrik eta, gainera, ez zaio inolako eperik jarri euskara ikasteko. Ez dago birritan azaldu beharrik maila horretako langile batek egunerko lana euskaraz egiteak oso garrantzitsua dela administrazioa (oraingoan, Du-

rangoko Udala) euskalduntzeko.

Gauzak horrela, Berbarok gutun bat bidali dio Durangoko alkate andeari. Gutun horretan, Eusko Jaur-laritzak administrazioa euskalduntzeko eskaintzen dituen aukerez baliatu dadin eta ekonomilari lanpostuari derrigortasuna, hau da, euskara ikasteko epea jar diezaion.

## Ekintzen egitaraua

Atal honetan, egindako ekintzak eta egingo direnak azalduko ditugu puntual-puntual.

### Urtarrila

"Durango 1893" argazki-erakusketa (Gere-diaga).

"Ur ametsak" argazki-erakusketa (J. Uribe). Abizenak euskal grafiaz jartzeko kanpaina.

### Otsaila

"Bertakoek" argazki-erakusketa (Ana eta Enrike).

"...amamak" argazki-erakusketa (Aitor Agorria).

Abizenak euskal grafiaz jartzeko kanpaina. Ipuin labur, bertso paper eta komiki lehiaketa. (Informazioa: 620 19 18).



### Martxoa

- Boltsiloko kantu liburuaren argitalpena.

- 2an, sagardotegira irteera.

- 15ean, bertso afaria. Bertsolariak: Jon Sarasua eta Xabier Amuriza. (Gauko 9etan Kurutzia ikastolan. Txartelak Berbaron eta Hitzen).

- 17an, puenting Soraluzen. Guezan Ba!

- 29an, gauko 9etan Institutoan antzerkia Hika taldearen "Henry Bengoa Inventarium"

### Apirila

- 11tik 14ra, Elizondora irteera. Guezan Ba!

- 26an, ipuin labur, bertso paper eta komiki lehiaketako sari banaketa (Arratsaldeko 6etan Pinondo Etxean). Parte hartzaileak: Jose Felipe Auzmendi eta Goenkaleko "Mikel".

# Guezan Ba!

Bueno hi, zelan juen die azkenengo astiek? Nahiko triste gure barri barik ez? Ba trankil txo, hemen gauz bueltan hiretzako notizia barri pilo batekin.

Hi! Kriston berrixe deku hiretzat, Berbaroren jentileziatz lokal berri bat deku oin; Berbaro tabernaren gainekaldien ezkiña txiki bat proportzionau deuskue. Hantxe ibiltzen gozak/n danok geure biherrak eitten.


Antzerki ikusgarrixe alde batera itxi barik, gure eskuetan dekogun trebetasune erakutsi nahixen, txotxongilo ikastaro berezi bat eñ dogu, honekin gero antzerkitxo bat eitteko asmuegaz.

Karnabaletan hik etzekiñat, baiña gure gazte taldeko gazteiek behintzet, erropa batzuk gainien ipini eta han urten habien edurpien, azken

## Ieup!

egunetako hotzari barre eñez. Ikustekuek izen zien, adibidez: bi komun ibiltari, monja haurdun bat, bi mino hiztun, Arturo erregearen korteko arlekin, Mikele

ñutuz be itxaron, hator atuen Berbaroko Guezan Ba!-ko delegaziora eta apunteu hadi. Zer, ba al dekok/n uda honetarako planik, ala? Baez badekokak/n ezik/n birritten



Zarrabeitia, Marteko turista pare bat... Disfrazak ez heuken garrantzia handirik, han ardure habena ondo pasetie eta dibertitzie zan; hori bai, euskal giro batien.

Zubi batetik behera hire burue botateko besteraiñoko pedradie badekok/n, ezin/k bi mi-

pentseu eta apunteu hadi Guezan Ba!-ko udako kanpamenture.

Bueno, denborie aurrera dohie eta erredakziñukuek deike dekuz gure zatixe publiketako. Beste barik, agur eta ondo paseu! etanire amak esaten dauen moduen, gitxi gasteu.

## ADI GAZTEOK!!!

Dakizuenez... Berbarok Gazte talde bat du, **Guezan Ba!** Orain, gaztetxoagoekin aisialdi talde berri bat antolatzen ari gara. Lan talde bat osatu da, baina aurrera jarraitzeko jende berriaren premia daukagu. Beraz, aisialdi talde hau dinamizatzen lagundu nahi badiguzu deitu edo etorri bulegora. Kriston ondo pasatuko dugu danok eta baldin badituzu ekarri lagunak.

## LARROSA

Berbarok Durangoko etxeetara heltzen den publizitatearen neurketa egi du. Emaitzen arabera, *Saltsa* sukaldari-eskola txapelduna izan da euskarazko publizitatean.



## ARANTZA

Eraz astekarian inoiz publizitatea erderaz irakurri izan dugu. Erazen egoera ekonomikoa larria dela jakinda ere, merezi al du?

**MIRW** ENVIOS URBANOS, NACIONALES E INTERNACIONALES  
Maspe kalea, 10 behean IURRETA  
Telefono: 620 01 62  
Zugandik oso hurbil, ekipo handi bat 350 agentzia baino gehiagorekin.